



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

81. INFORMAZIO BULETINA

2013ko Iraila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Aurrerabide berriak 2014-2020rako Hainbat Urterako Finantza Esparrua behin betiko onartzeko bidean

Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak 2014-2020rako Hainbat Urterako Finantza Esparruari (HUFÉ) buruz duten akordio politikoaren parte den dokumentu sorta bat onartu du Europako Batzordeak.

2014-2020rako Hainbat Urterako Finantza Esparrua Europa 2020ren helburuak betetzeko da. Europako Batzordeak Europako ekonomia hazteko duen estrategia da Europa 2020. HUFÉk Europar Batasunaren finantza arloko lehentasun politikoak egokitu ditu 2014-2020 aldirako eta gastu-kategoria handi edo kontusail bakoitzerako urteko gehieneko kopuruak ezarri ditu.

Hona hemen onartutako dokumentuak:

- Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen arteko aurrekontu-gaiei buruzko erakunde arteko akordio-proiektua. HUFÉren erregelamenduaren aldi berean sinatu zen;
- sei aitorpen-proiektu gai hauei buruz: baliabide propioak; gastu publikoa hobeto erabiltzea; urteko aurrekontuari lotutako genero-gaiak; Gazteen Enplegua, Horizonte 2020, Erasmus, COSME eta beste hainbat ekimenetarako aurrekontuak; herrialdeen kudeaketari eta Hainbat Urteko Finantza Esparruaren berrazterketari buruzko adierazpenak.

Batzordeak onarpen horiek gauzatzen dituenetik aurrera, HUFÉrekin lotutako dokumentuak Europako Parlamentuak onartu beharko ditu eta, ondoren, Kontseiluak HUFÉ erregelamendua onartu ahal izango du. Azkenik, erakunde arteko akordioa sinatuko dute hiru erakundeek eta horren bidez, behin betiko onartuta geldituko da 2014-2020rako Hainbat Urterako Finantza Esparrua.

Informazio gehiago:

<http://register.consilium.europa.eu/pdf/en/13/st11/st11298.en13.pdf>

http://ec.europa.eu/budget/library/biblio/documents/fin_fw1420/file_16658-13_en.pdf

http://ec.europa.eu/budget/library/biblio/documents/fin_fw1420/file_11961-13_ADD1_en.pdf



> Euskal Eurohiriak 20. urteurrena du eta hirien foro bat sortuta ospatuko du

Sortu zeneko 20 urteurrena ospatzen ari da aurten Euskal Eurohiria. Urteurren horren harira, azaroan (14an eta 15ean) Euskal Eurohiriko Hirien Foroa egingo dute Donostian, Donostiako Estrategia Bulegoak eta Euskal Eurohiria Garatzeko Agentziak antolatuta. Eurohiriaren 20 urteei buruz hausnarketa estrategikoa egiteko baliatuko dute foroa eta etorkizunean lantzeko eta sakontzeko ardatz estrategikoak ezartzeko abiapuntua ere izango da.

Abiapuntutzat 1813an hiria suntsitu eta berreraiki zuteneko berrehugarren urteurreneko oroitzapen-ekitaldiak hartuta, gerra haren eragina jasan zuten hirien, hala nola Donostiaren, errealitateak eta proiektuak ezagutzen saiatzea izango da Foroaren helburua.

Horrez gain, mugaren bi aldeetako erakundeen, taldeen eta sektoreen arteko lankidetzeta-esperientziak ezagutzeko ere balioko du foroak, Eurohiriaren esparruan, harreman-prozesuak sustatzeko.

Informazio gehiago:

http://donostiafutura.com/cas/comunica/actualidad/julio_13/especial-eurociudad.html

> Donostia Zinemaldiaren 61. edizioan eskaini diren 24 filmek MEDIA programaren laguntza jaso dute

Irailaren 20tik 28ra izandako Donostia Zinemaldiaren 61. edizioko atal batean eta bestean parte hartu duten 24 filmek Europako ikus-entzunezko sektoreari laguntzen dion MEDIA programaren laguntza jaso dute.

Zinemaldian parte hartu duten 24 film horiei diru-laguntza emateaz gain, MEDIA programak "Industriaren kluba" atalari ere ematen dio laguntza. Zinemaldian izaten diren industriako profesionalentzako, erosleentzako eta saltzaileentzako topagunea da klub hori. Europako laguntza eta babesa jasotzen du, halaber, Zinema Eraikitzen atalak, MEDIAMundus ekimenaren bidez.

Zinemaldiaren harira, irailaren 22an, informazioa emateko saio bat antolatu zuen MEDIA Antena Euskal Herriak MEDIA Desk Españarekin koordinatuta. MEDIAn lagundutako proiektuak aurkeztu zituzten saio hartan eta Europako Batzordearen Europa Sortzailea programa ere aurkeztu zuten. 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera, MEDIA, MEDIA MUNDUS eta Kultura programak bilduko ditu Europa Sortzaileak.

Informazio gehiago:

<http://www.mediaeusk.eu/>

<http://www.mediadeskspain.eu/noticia.asp?p=24-peliculas-con-ayuda-media-se-proyectaran-en-la-61-edicion-del-festival-internacional-de-cine-de-san-sebastian>



> **Gipuzkoako DBHko ikastetxeek gizarte-kontzientzia sustatuko dute Ogasun eta Finantza Departamentuarekin**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzuetako eta Zerga Heziketako Zuzendaritzak eta Gipuzkoako heziketa arloko hainbat eragilek lankidetzari ekin diote Gipuzkoan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) zerga-hezkuntzari buruzko programa bat abian jartzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren iritziz, zerga-sistema ezagutzeak presentzia handiagoa izan behar du herritarren artean eta hezkuntza-sisteman. Horregatik, hezkuntza-komunitatearekin batera, bigarren mailako hezkuntzan zerga-kontzientzia sustatzeko programa bat hitzartu du.

Programa horri esker, Ogasun Departamentuak, hezkuntza arloko eragileekin batera, unitate didaktiko bat prestatuko du. Hezkuntza komunitateko sinatzaile bakoitzak hezkuntza-programa hau gutxienez ikastetxe batean abian jartzeko konpromisoa hartu du.

Informazio gehiago:

<http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/es/974/centros-eso-fomentaran-conciencia-social-colaboracion-hacienda>



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Iraila

KOHESIO-POLITIKA

> Barrosok Europaren suspertzea sumatu du baina gogorarazi du aurrez ikusitako ekintzak burutu egin behar direla

Irailaren 11n, Europako Batzordeko presidente José Manuel Durao Barrosok Europar Batasunaren egoerari buruzko urteroko hitzaldia eman zuen Strasburgon, Europako Parlamentuaren aurrean.

Barrosoren esanetan, azken emaitza ekonomikoak eta kontsumitzaileen konfiantza kontuan hartuta, badirudi Europa suspertzen hasia dela. Hala ere, Europa suspertzeko planean jasotako ekimenak egiten jarraitu eta ekimen horiek burutu beharra dago.

Barrosok iragarri du datozen zortzi hilabeteetako ahaleginak kontu publikoak onbideratzera, egitura berritzera eta inbertsio espezifikoak egitera bideratu dituztela. Aldi horren ondoren izango dira Europako hauteskundeak. Batzordearen lehentasun nagusia bankuen batasuna lortzea eta gobernantza ekonomikoa, finantzaketarako sarbidea, laneko mugikortasuna eta gazteen langabeziaren aurkako borroka lantzen jarraitzea da.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_SPEECH-13-684_es.htm

> Lurralde-lankidetzaren Europako astea izan da


Urriaren hasieran lurralde-lankidetzaren Europako astea izan da Bruselan. Open Days ere esaten zaio aste horri eta Europar Batasuneko eskualde-politikari buruzko erreferentziazko ekitaldia da.

“Europako eskualdeak eta hiriak 2020 urterantz” izan da Eskualdeen eta Hirien Europako Astearen leloa eta 54 herrialdetako 5.500 partaidek baino gehiagok (horien artean, tokiko, eskualdeko eta estatuetako erabakitzaile politikoak eta adituak) jakintza trukatu eta harremanak egin ahal izan dituzte 2014-2020 programazio-aldi berriako.

Euskadik, Europar Batasunerako ordezkariaren bidez, prozesu honetan parte hartu du duela 9 urtetik hona egin duen gisan eta dituen esperientziak eta jardunbide egokiak eta balio erantsia helarazi dizkio Europako eztabaidari hainbat gaitan; hala nola eskualdeek Europaren eraikuntzan duten partaidetza, industria-politikan eta klusterren zereginean eta subsidiariorotasunean, eta bere burua krisi ekonomikoan eredu den eskualde gisa aurkeztu du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2013/index.cfm



> UPV/EHUren eta Bordeleko Unibertsitatearen Mugaz Gaindiko Euroeskualde Campusa Sarean, jada

EHUBAQ Euskampus Bikaintasun Campusaren (UPV/EHU - Euskal Herriko Unibertsitatea) eta IDEX Bordeaux-eko (Bordeleko Unibertsitatearen ekimena), DIPC (Donostia International Physics Center) eta Tecnalia-ren Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa-k bere web orri berria aurkeztu du.

EHUBAQ-ren webgune berriari esker Kanpusari buruz albisteez eta Nazioarteko Campusak eskaintzen dituen aktibitateez eta proiektuez gain, unibertsitateek zientzien eta teknologia esparruan eskaintzen dituzten aukera guztiak zabalduko dira.

Proiektu honen xedea heziketa, berrikuntza eta ikerketa alorretan nazioarteko campus erreferentziala sustatzea da, Euskampuseko Jakintza Guneetan eta Bordeleko Unibertsitatearen Labexeetan oinarrituko litzatekeena.

Informazio gehiago:

<http://www.ehubaq.eu/>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Suedia, Alemania eta Irlanda berrikuntzaren emaitzak neurtzen dituen Europako adierazle berriaren buruan

Argitaratu ditu Europako Batzordeak berrikuntzaren Europako adierazlearen emaitzak. Adierazle berri honek berrikuntzan izandako emaitzak neurtzen ditu eta Europako Batzordearen “Berrikuntzaren aldeko Batasuna” eta “Berrikuntzaren indize sintetikoa” adierazlearen osagarria da.

Adierazle berri honek sektore berritzaileetatik etorritako ideiak merkatuan enplegu hobek sortuz eta herrialdearen lehiakortasuna sustatuz zer neurritan islatzen diren neurtzen du. Adierazle honek aukera ematen du herrialdeen berrikuntza arloko politikak alderatzeko.

Lau osagaitan oinarrituta dago adierazlea: berrikuntza teknologikoa (patente kopuruaren bidez neurtua), jakintzan intentsiboak diren jardueri lotutako enplegua (enplegu guztiarekiko ehuneko), jakintzan intentsiboak diren ondasunen eta zerbitzuen lehiakortasuna (teknologia altu eta ertaineko produktuen balantza komertzialak balantza komertzial osoari eta jakintzan intentsiboak diren zerbitzuei egiten dien ekarpena, zerbitzuen esportazio guztien ehuneko gisa) eta azkar hazten ari diren sektore berritzaileetako enpresetako enplegua.

Adierazle berriaren emaitzen arabera, Suedia, Alemania, Irlanda eta Luxenburgo dira berrikuntzan egindako ahaleginari etekinik handiena ateratzen dieten Europar Batasuneko estatu kideak. Mundu osoa aintzat hartuta eginiko alderaketa baten arabera, Europar Batasunak, oro har, emaitza onak ditu, baina munduko ekonomiarik berritzaileen atzetik dago..

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/press/2013/pdf/staff_working_document_indicator_of_innovation_output.pdf



> **“Hezkuntza zabaltzen”**: ikastetxeetan eta unibertsitateetan berrikuntza eta trebetasun digitalak sustatzeko ekimen berria

Europako Batzordeak “Hezkuntza zabaltzen” (*Opening up education*) aurkeztu du, Europako ikastetxeetan eta unibertsitateetan berrikuntza eta trebetasun digitala sustatzeko ekimen berria. *Rethinking Education, European Higher Education in the World* estrategietan eta Agenda Digitalean oinarritutako baterako ekimena da. Azken hori Europa 2020 Estrategiaren ekimen esanguratsua da.

Hori aurkeztearekin batera, ekimena zabaltzen eta abian jartzen laguntzeko, Batzordeak *Open Education Europa* izeneko webgune berritzailea jarri du abian eta gune horrek ikasleei, profesionalei eta ikastetxeei aukera emango die hezkuntzako baliabide irekiak modu askean partekatzeko.

Hiru arlo nagusi ditu ekimen berri honek: erakundeentzako, irakasleentzako eta ikasleentzako berrikuntza-aukera berriak sortzea; hezkuntza-baliabide irekien erabilera areagotzea finantzaketa publikoaren bidez sortutako materialak denek eskuragarri izatea bermatuz; eta ikastetxeetan IKTen eta konektagarritasunaren arloko azpiegiturak hobetzea..

Informazio gehiago:

<http://www.openeducationeuropa.eu/>



> Europako Batzordeak enpresa txikiei eta ertainei ezarritako betebeharrak burokratikoak murrizteko ahalegin handiagoa egiteko eskatu die estatu kideei

Europako Batzordeko presidentea José Manuel Durao Barroso eta Zama administratiboen analisia egiteko Europako goi mailako taldeko arduradun Edmund Stoiberrek adierazi dute Europar Batasunak zama administratiboak murrizteko ezarritako ekintza-programarekin gustura daudela eta finkatutako helburuak bete direla, baina beharrezkoa dela estatu kideek Europan enpresa txikiei eta ertainei ezartzen zaizkien betebeharrak burokratikoak murrizteko ahalegin handiagoa egitea.

Ekintza-programak % 25eko murrizketa egiteko helburua ezarri zuen eta helburu hori bete eta gainditu egin da; izan ere, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 32.300 milioi euro (% 26,1) aurrezteko ekintza-programa onartu dute. Neurri horien artean daude, adibidez, BEZa fakturatzeko sistema erabat elektronikoa erabiltzera igarotzea eta Europar Batasunaren barneko merkataritzari buruzko estatistikak egiteko datuak ematen dituen enpresa kopurua murriztea. Aurtengo ekainean abian jarritakoa da ekimen berriena eta sinpletu egin dituen enpresa txikien (gehienez 50 langilekoak) kontabilitate-arauak eta urtean, gutxi gorabehera 1.500 milioi aurrezteko ekintza behar luke.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-13-836_es.htm



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **The regional state in the era of Smart Specialisation (Kevin Morgan. Ekonomiaz, 83. zk.)**

Espezializazio adimendunaren estrategiak aro berri bat ekarri du Europar Batasuneko eskualde-berrikuntzarako politikara eta erronka handia da eskualdeentzat, estatu kideentzat eta Europako Batzordearentzat. Artikuluak erronka hori aztertu du Euskal Autonomia Erkidegoan eta Galesen izandako eskualde-berrikuntzarako politikari azterketa kritikoa eginez. Toki horietan, oso modu aktiboan zabaldu dira industria-politikak 30 urtez.

Artikuluak iradokitzen du eskualde batek etorkizunean egin ahal izango duena, hein batean, iraganean egin duenaren eta horretatik ikasi duenaren araberakoa dela. Politikako *Path dependence* esaten zaion horrek esan nahi du eskualdeek ez dituztela haien espezializazio-estrategiak hutsetik, ezerezetik abiatuta diseinatzen, baizik gertuko iragana etorkizunaren gidari izan daitekeela.

Informazio gehiago

<http://www1.euskadi.net/ekonomiaz/downloadPDF.apl?REG=1267>

> **Ekoberrikuntza: Europako eskualdeak ekonomia berderantz (Panorama, 47. zk.)**

Europako Batzordearen Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak hiru hilean behin argitaratzen duen aldizkariaren ale berria argitaratu da. Berrikuntza ekologikoa eta Europako eskualdeek alor horretan duten zeregina da gai nagusia eta proiektu ekologikoen eta energia-eraginkortasunari buruzko proiektuen bidez hazkunde adimenduna eta iraunkorra sustatzen duten Europar Batasuneko egitura-funtsek eta inbertsio-funtsek duten zeregina ere aztertu du aldizkariak.

Aurtengo *Open Days* jardunaldietan antolatutako tailer eta mintegi nagusi batzuetan sakondutako artikulu sorta bat ere aldizkarian jasota dago.

Era berean, Danubioko eta Baltikoko eskualdeetako proiektuak koordinatzen laguntzen duten estrategia makro-erregionalen deskribapen orokorra ere irakurgai dago; baita Europar Batasuneko egitura-funtsek hondamendietan laguntza emateko lanetan egindako lanen eguneraketa eta 2007-2013 aldirako ex post ebaluazio-prozesuaren azalpena ere.

Más información:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag47/mag47_en.pdf



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2013ko Iraila

> Eskualde Garapenerako Europako Funtsak 2007-2013 aldian finantzatutako etxebizitzaren inbertsioak (Europako Batzordea)

Azterlanaren helburua 2007-2013 programazio-aldian hirigintzako eta etxebizitzaren arloko proiektuetan erabili diren EGEF funtsak aplikatzeko metodoak aztertzea eta azaltzea da. Etxebizitza- eta energia-beharrak eta egoera zailan dauden komunitateen behar sozioekonomikoak aldi berean jorrazteko balio izan duten ikuspegi integratuak aztertu dira.

Ikerketak sakon aztertu du EGEF bidez babestutako etxebizitzetako inbertsioek zer neurritako ekarpena egin dioten egoera zaila duten tokietako hiri-eraberritze integratuari eta iraunkorrari. Eraberritzeko proiektu horiek prestatzeko eta gauzatzeko dituzten erronka nagusiak ere identifikatu ditu azterlanak. Eta amaitzeko, hausnarketa bat eskaintzen du EGEFen erregelamenduaren esparruak etxebizitzaren arloan egindako esku-hartzei eta horien aplikazio praktikoari buruz emandako ikasgaiei buruz.

Azterlanaren helburua 2014-2020 programazio-aldian EGEF funtsak erabiltzeari buruzko hausnarketa bat egitea da.

Más información:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/housing/2013_housing_study.pdf